



A – 3. PROA PLANA: ERREFORTZU ETA LAGUNTZA PROGRAMA

Deialdiaren xedea

Deialdiak bi helburu ditu:

- a) Ikasturte honetan programan parte hartu duten Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen programa berritzea 2010-2011 ikasturterako, jarraitzeko asmoa izan eta eskaera egin badute, baldin eta memoriaren balioespen positiboa egin bada.
- b) 2010-2011 ikasturtean programa zabaltzea. Horretarako, Bigarren Hezkuntzako beste lau ikastetxe hautatuko dira. Kopuru hori handiagotu daiteke, lehengo proiekturen batek aurrera egiten ez badu (uko egin diotelako, balioespen negatiboa duelako...).

Programa honetan parte har dezakete **Bigarren Hezkuntzako institutu publikoek**, hezkuntzaren ikuspegitik desabantailak dituzten neska-mutilen proportzio adierazgarria izanez gero.

Ikastetxe guztia da programaren hartzaile, gizarte-desabantaila egoeran dauden DBHko ikasleak, batez ere, aintzat hartuta. Gainera, ikasketa instrumentalak sendotzeko, **ikastetxeak Eskola-laguntza taldeak izango ditu eskola-orduetatik kanpo** (2. eranskina). Ikasleek talde horietan parte hartzearekin batera, ikasleek eta haien familiakoek konpromisoa hartu behar dute, helburu hauek bermatzeko: programan jarraitzea, aurreikusitako jardueretan parte hartzea, familiakoek jarraipena egitea, eta ikastetxearen eta familien arteko harremanak sendotzea.

Programaren helburua

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei laguntza eta errefortzua emateko programaren helburua da gizarte- edo hezkuntza-desabantaila egoeran dauden ikasleak dituzten Bigarren Hezkuntzako ikastetxe jakin batzuen eskola-arrakastaren indizeak hobetzeko premiari erantzutea.

Programaren xedea da ikastetxe bakoitzaren emaitzak hobetzea, alderdi hauetan hobera egiten lagunduko duten jardueren bidez:

- ikasketen kantitatea eta kalitatea,
- ikasleen eta ikastetxearen arteko harremanak,
- familien partaidetza, eta
- ikastetxearen inguruak ematen dituen hezkuntza-aukerak.

Proiektuen ezaugarriak

Programa honetan parte hartuko duten ikastetxeek hiru ikasturte dituzte lan-plana garatzeko eta DBHko maila guztietara hedatzeko.

Planteatutako xedea lortzearen, aldaketa orokorra egin behar da, bai ikastetxearen antolaketan eta funtzionamenduan, bai ikasketen alorrean, inklusioaren ikuspegia aintzat hartuta eta ikasle-multzo batzuen berariazko laguntzarekin.

Helburua da hiru eremutan esku hartzea. Izan ere, ikerketa guztiek azaldu dutenez, hiru eremu horien eragina nabarmena da ikastetxeak ikasle guztien emaitzak hobetzeko duen gaitasunari erreparatuz gero, eta, batez ere, eskolan desabantaila argiak dituzten

ikasleen emaitzak hobetzeko gaitasunari erreparatuz gero. Hiru eremuak honako hauek dira:

- Ikastetxea bera, haren antolaketan, funtzionamenduan, ikasle guztien hezkuntza-premiei erantzuteko prozeduretan eta baliabideetan egindako aldaketen bitartez.
- Familiak, batez ere harremanei, ikastetxean parte hartzeari eta hezkuntza-prozesuan inplikatzeari dagokionez.
- Ikastetxearen ingurua, hezkuntzaren alorreko eskolaz kanpoko eskaintzak gehituz.

Bideratu nahi diren arazoak, neurri handi batean, Lehen Hezkuntzan sortzen dira, eta fase horretan eragin behar dugu, arazo horien prebentzioa gauzatzeko. Hala ere, arazo larrienak Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan ageri dira, batez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, eta programa honen jardueren muina etapa horretan gauzatu da. Dena dela, arazo horiek konpontzeko bide egokia izan ohi da Lehen Hezkuntzako ikastetxeekin baterako jarduerak egitea, hango haurrak Bigarren Hezkuntzako ikastetxera pasatuko baitira gero. Irizpide hori aintzat hartuta, jarduerak batez ere Bigarren Hezkuntzako institutuetan egitea proposatzen da, eta programako jarduera-ildo batzuetan Lehen Hezkuntzako ikastetxeekin batera aritzea, gero institutura joango diren ikasleekin batera alegia.

Proiektua egiteko orientabidea

Ikastetxe batek, programan parte hartzeko, hiru eremu hauetan esku hartu behar du: funtzionamenduan; irakasleen koordinazioan eta ikasleei emandako arreta zuzenean; eta familiekiko harremanetan eta hezkuntza-inguruaren hobekuntzan.

Ikastetxeak jardungo du: a) antolaketa- eta funtzionamendu-ereduei buruzko hausnarketa eginez, eta b) berriazko jardura-ildo batzuen bidez.

Antolaketari eta funtzionamenduari dagokionez, erabakiak hartzeko eta antolaketan aldaketak egiteko konpromisoa hartu behar du ikastetxeak. Aldaketa horien artean, ikastetxearekin, familiekin eta inguruarekin zerikusia duten alderdiak aintzat hartu behar dira bederen:

- Aniztasunari arreta emateko estrategiak aldatzea eta ikuspegi inklusiboak aintzat hartzea.
- Koordinazio horizontalerako prozedura berriak ezartzea.
- Familiekiko harremanak bideratzeko ikuspegi berriez baliatzea.
- Inguruarekiko koordinazioa eta lankidetzak.

Jardura-ildoei dagokienez, hona hemen adibide batzuk:

Ikasleei arreta zuzena:

- Aniztasunari arreta emateko plana
- Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzarako igarobidea
- Tutoretzak (pertsonalizatuak, taldekakoak,
- kontratu pedagogikoak, banan-banako planak...)
- Tutorepeko eskola-liburutegia
- Hizkuntza-tailerrak
- Talde elkarreragileak
- Literatura-solasaldiak
- Bi irakasle ikasgelan
- Eremukako antolaketa
- Eskola-bizikidetzak
- Hezkuntza-errefortzu osagarria
- ...

Familiekin esku-hartzea:

- Familiekin lankidetzak
- Familiakoen partaidetza eta prestakuntza
- Batzorde mistoak antolatzea
- Literatura-solasaldiak familiakoekin
- Eskola-bizikidetzak
- ...

Inguruarekiko harremanak:

- Eskolaz kanpoko jardueren tailerrak
- Eskola-absentismoa
- Koordinazioa: gizartearen eta hezkuntzaren alorreko bitartekariekin, eta ikasleekin eta/edo haien familiekin esku-hartzen duten beste eragile eta zerbitzuekin.
- Boluntarioekin lan egitea
-

Jarduera-ildo horiek garatzeko eta antolaketa-aldaketak proposatzeko, kontuan hartu behar da programa honen planteamenduak alderdi hauek aintzat hartzen dituela:

- Itxaropenak hobetzeak (ikasleek haien gaitasunei buruz dituzten itxaropenak hobetzeak, ikastetxeak ikasleei buruz dituen itxaropenak hobetzeak, familiekin seme-alabei buruz dituzten itxaropenak hobetzeak) eragin erabakigarria du eskola-etorkizunean. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza baldintza egokienetan egiten lagundu nahi bada, itxaropenen hobekuntza landu behar da.
- Eskola-etorkizuna hobetzeko, sarritan sendotu behar dira –batez ere hasierako mailetan– ikasgai instrumentalak oro har, baita lanaren antolaketa eta ikasteko ohitura hartzea ere.
- Hezkuntza-prozesuan familien inplikazio-maila handiena lortzea komeni da. Halaber, ikastetxearen eta familien arteko harremanen kalitatea hobetzeko ahalegina egin behar da, prestakuntzaren eta familien partaidetzaren bidez, ikastetxeko hainbat eremutan.
- Esku-hartze orokorrak, ikasleen heterogeneotasunean eta berdinen arteko laguntzan oinarrituak (hau da, erreferentziazko taldearen barnean arazo gehien dituzten ikasleei zuzenduak) ikasketa-prozesua gehiago bizkortzen du, ikasleen zailtasunen araberako taldeen eraketak baino. Gainera, harreman solidarioagoak sustatzen ditu eta etiketak gainditzeko lagungarria da.
- Programa honen eremuan egingo diren jarduera guztiak ikastetxearen jarduera orokorraren zati izan behar dute.

Esleipena

Programa garatzeko hiru ikasturteetan, eta egindako lanaren ebaluazio positiboa lortuz gero, baliabide osagarriak jasoko ditu ikastetxeak: lanaldi osoko irakasle bat gehiago izango du, eta eskola-laguntza garatzeko monitoreak kontratatzeko baliabideak ere bai. Gainera, beste baliabide ekonomiko batzuk ere esleitu ahal zaizkio, jarduera-ildoen ondorioz eragindako funtzionamendu-gastuak ordaintzeko.

Berariazko baldintzak

Eskabidea onartzeko, jarraibide honetan zehaztutako baldintza orokorrak betetzeaz gain, berariazko eskakizun hauek ere bete behar dira:

a) 2009-2010 ikasturtean onartutako proiekturik ez duten ikastetxeek berariaz zehaztu behar dituzte, III. eranskinean (PROPOSATUTAKO HEZKUNTZA-EKINTZAREN SINTESIA), honako alderdi hauek, laburbilduta:

- Proiektuaren justifikazioa
- Helburuak
- Programarekin zerikusia duten antolaketa- eta funtzionamendu-aldaketen deskribapen orokorra
 - Inklusioaren ikuspegitik aniztasunari arreta emateko estrategien aldaketa
 - Koordinazio horizontalerako prozedura berriak ezartzea
 - Familiekiko harremanak ikuspegi berri batetik planteatzea
 - Inguruarekiko harremanak eta koordinazioa
- Aurreikusitako jarduera-ildoak, jarduerak, ekintzak...
- Aldaketak, ekintzak, jarduerak, berrikuntzak eta abar abian jartzeko arduradunak, eta prozesu horien kronograma
- Ebaluazioa (irizpideak, adierazleak, eragileak, uneak...)
- Irakasleen prestakuntza

b) 2009-2010 ikasturtean onartutako proiektua duten ikastetxeek ikasturte honetan gauzatutako proiektuaren memoria aurkeztu behar dute, hobetzeko proposamenekin batera.

c) zuzendaritza-taldeak koordinatzaile bat izendatuko du, programaren antolaketan, jarraipenean eta ebaluazioan lankidetzan jarduteko. Horrenbestez, programa hori ikastetxearen funtzionamenduan guztiz integratua dagoela bermatu behar da.

d) proiektuan aurreikusitako antolaketa-aldaketak egiteko konpromisoa

e) eskola-laguntza-deialdian jasotako baldintzak, baliabide hau errefortzu-programan integraturik baitago.

Aukeratzen diren ikastetxeen berariazko betebeharrak

a) zuzendaritza-taldea izango da programaren arduraduna, eta koordinatzailearen laguntza izango du.

b) eskola-laguntza-deialdian jasotako betebeharrak, baliabide hau, zehazki, errefortzu-programan integraturik baitago.

c) ikastetxeek, aukeratuak izan ostean, parte hartuko duten ikasleen familiakoen idatzizko baimena eskuratu behar dute. Halaber, urriaren 30a baino lehen, 3. eranskina behar bezala beteta bidali behar dute zonako Berritzegunera.

Baremoa

1.- Proiektu berriaren balioespena: **20 puntu, gehienez ere.**

Proiektu bat hautatzeko, 12 puntu izan behar ditu gutxienez.

Kontuan hartuko da:

- Deialdian zehaztutako helburuekin eta irizpideekin bat etortzea.
- Ikastetxeak aurkeztutako jarduera-proiektuaren kalitatea, bideragarritasuna eta zehaztasuna.
- Antolaketan eta funtzionamenduan aurreikusitako aldaketen eragina.
- Esku-hartzeko eremu bakoitzeko jarduera-ildoetako partaidetza-maila, eta haien arteko koordinazioa.

2.- Irakasleen partaidetza proiektuaren prestaketan, haren garapenean, etab. **(5 puntu, gehienez ere).**

3.- Prestakuntza-jarduerak: proiektuarekin zerikusia, parte-hartzaileen kopurua, etab. **(5 puntu, gehienez ere).**

4.- **Eskola-laguntza** programaren kalitatea, bideragarritasuna eta zehaztasuna **(5 puntu, gehienez ere).**

5. Ikasleen ezaugarriak: Ikasle bekadunak, gainditu gabeko ikasgaiak dituztenak, etorkinak, gutxiengo etnikoetakoak eta abar **(15 puntu, gehienez ere).**

Berariazko ebaluazioa

Ikasturtean zehar, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak programa gauzatzeko aholkulari-lanak egingo ditu, programaren jarraipena egiteaz arduratuko da, eta haren balioespena egiteko beharrezko informazio guztia bilduko du. Proiektuak koordinatzeko ardura hartuko duten pertsonak parte hartu beharko dute Administrazioak antolatuko dituen prestakuntza- eta koordinazio-saioetan; eta ikastetxearen ardura da prestakuntza-saioak antolatzea, proiektua egoki garatu dadin.

A – 3: 1. ERANSKINA

Ikastetxea: Kodea:

Udalerrria:Lurraldea:

1.- IKASLEEN DATUAK

DBHko 1. mailako gelen kopurua	
DBHko 1. mailako ikasle guztien kopurua	
Zailtasun akademikoak dituzten DBHko 1. mailako ikasleen kopurua	
Ikasgai guztiak gainditu dituzten DBHko 1. mailako ikasleen kopurua	
Ikasgai bat edo bi gainditu gabe dituzten DBHko 1. mailako ikasleen kopurua	
Hiru ikasgai edo gehiago gainditu gabe dituzten DBHko 1. mailako ikasleen kopurua	

DBHko 2. mailako gelen kopurua	
DBHko 2. mailako ikasle guztien kopurua	
Zailtasun akademikoak dituzten DBHko 2. mailako ikasleen kopurua	
Ikasgai guztiak gainditu dituzten DBHko 2. mailako ikasleen kopurua	
Ikasgai bat edo bi gainditu gabe dituzten DBHko 2. mailako ikasleen kopurua	
Hiru ikasgai edo gehiago gainditu gabe dituzten DBHko 2. mailako ikasleen kopurua	

DBHko 3. mailako gelen kopurua	
DBHko 3. mailako gelen kopurua	
Zailtasun akademikoak dituzten DBHko 3. mailako ikasleen kopurua	
Ikasgai guztiak gainditu dituzten DBHko 3. mailako ikasleen kopurua	
Ikasgai bat edo bi gainditu gabe dituzten DBHko 3. mailako ikasleen kopurua	
Hiru ikasgai edo gehiago gainditu gabe dituzten DBHko 3. mailako ikasleen kopurua	

DBHko 4. mailako gelen kopurua	
DBHko 4. mailako gelen kopurua	
Zailtasun akademikoak dituzten DBHko 4. mailako ikasleen kopurua	
Ikasgai guztiak gainditu dituzten DBHko 4. mailako ikasleen kopurua	
Ikasgai bat edo bi gainditu gabe dituzten DBHko 4. mailako ikasleen kopurua	
Hiru ikasgai edo gehiago gainditu gabe dituzten DBHko 4. mailako ikasleen kopurua	

Ikastetxeko gela guztien kopurua	
Ikastetxeko ikasle guztien kopurua	
DBHko ikasle atzerritarren kopurua / ikasle guztien kopurua	
DBHko ikasle bekadunen portzentajea ikasle guztiekiko	

2.- KOORDINATZAILEAREN DATUAK

Izen-abizenak:

Irakasgaia, ardura:

Ikastetxean behin betiko lanpostua (bai-ez):

Programari ematen dizkion orduak:

Goian aipatutako ikastetxearen zuzendariak eskatzen ditu _____ monitore eta/edo irakasleen _____ ordu, PROA errefortzu eta laguntza-proiektua 2010-2011 ikasturtean dinamizatzeko, aurkeztutako datu orokorretan aurreikusitakoa aintzat hartuta.

.....(e)n, 2010eko(a)ren (e)(a)n

Ikastetxearen zuzendariaren sinadura eta zigilua

A – 3: 2. ERANSKINA

ESKOLA-LAGUNTZARAKO PERTSONALA (LAGUNTZA ETA ERREFORTZUA EMATEKO PROGRAMA)

Ikastetxea:	Udalerrria:	Lurraldea:
Koordinatzailea:	Eskatzen diren taldeen kopurua:	
Laguntza gauzatzeko asteko egunak eta orduak:		
Laguntza-saioen edukiaren eta metodologiaren deskribapen laburra (zertarako erabiliko diren eta nola jardungo duten):		
Koordinazioa gauzatzeko asteko egunak eta orduak:		
Koordinazioan parte hartuko duten pertsonak eta haren edukiaren deskribapen laburra:		
Familietikiko harremanak:		
Udalak edo beste erakunde batzuek antolatutako antzeko programekin zerikusia:		
Ikastetxeak aintzat hartuko dituen ebaluazio-adierazleak:		
Iruzkinak:		

.....(e)n, 2010eko(a)ren (e)(a)n
 Ikastetxearen zuzendariaren sinadura eta zigilua

A – 3: 3. ERANSKINA

ESKOLA-LAGUNTZA (LAGUNTZA ETA ERREFORTZUA EMATEKO PROGRAMA)

(Zonaldeko berritzegunera bidali behar da urriaren 30a baino lehen)

Ikastetxea: Kodea:

Udalerrria: Lurraldea:

DATU OROKORRAK

DBHko 1. mailako gelen kopurua	
DBHko 1. mailako ikasleen kopurua	

DBHko 2. mailako gelen kopurua	
DBHko 2. mailako ikasleen kopurua	

Programaren onuradunak diren DBHko 1. mailako ikasleen kopurua	
Gizarte- edo hezkuntza-desabantailarik izan gabe programan parte hartuko diren DBHko 1. mailako ikasleen kopurua	

Programaren onuradunak diren DBHko 2. mailako ikasleen kopurua	
Gizarte- edo hezkuntza-desabantailarik izan gabe programan parte hartuko diren DBHko 2. mailako ikasleen kopurua	

PROGRAMA GARATZEKO ARDURA DUTEN IRAKASLEAK

Izen-abizenak	Tutorea (bai-ez)	Ikastetxean behin betiko lanpostua (bai-ez)	Programari ematen dizkion orduak

PROGRAMA GARATZEKO ARDURA DUTEN MONITOREAK

Izen-abizenak	Programari ematen dizkion orduak

PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTEN IKASLEAK

Taldea ____ (talde bakoitzeko errepikatu)				
Izen-abizenak	Jaioturtea	Maila eta taldea	Familiak konpromiso formala hartu du	Oharrak
1.-				
2.-				
3.-				

4.-				
5.-				
6.-				
7.-				
8.-				
9.-				
10.-				
11.-				
12.-				
Taldeko ikasle guztien kopurua, eskolan zailtasunik ez dutenak barne hartuta				

KANPOKO LAGUNTZAILEAK: GURASO-ELKARTEA, UDALA, GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK, ETAB.

Erakundea	Inplikaturako pertsona	Programari ematen dizkion orduak	Zer jardueratan parte hartzen du?

.....(e)n, 2010eko(a)ren (e)(a)n

Ikastetxearen zuzendariaren sinadura eta zigilua